

ADITZ JOKATUGABEKO KONTZESIO PERPAUSAK.

Berandu sartu gara. Hala ere, pelikula osoa ikusi dugu
Berandu sartu arren, pelikula osoa ikusi dugu
Nahiz eta berandu sartu, pelikula osoa ikusi dugu.
Berandu sartuagatik, pelikula osoa ikusi dugu.
Berandu sartuta ere, pelikula osoa ikusi dugu.

Gidatzen badaki. Baina ez zaio autoa eramatea gustatzen.

(-agatik)

(arren)

Pastel horiek oso itxura ona dute. Hala ere, ez dute zapore onik.

(Nahiz eta)

(-ta/ da ere)

Telebista berri horrek asko balio du. Baina, ez du irudi onik ematen.

(Nahiz eta)

(arren)

Besaulki berria behar dut. Hala ere ez dut dirurik erosteko.

(- ta/da ere)

(-agatik)

Joseba oso azkarra zen. Hala ere, suspentso mordo bat jasotzen zuen beti.

(-ta/da ere)

(arren)

Dena zehatz-mehatz azaldu didate. Baina dena ahaztu zait.

(Nahiz eta)

(-agatik)

Hurrengo astean oporrak hartuko ditugu. Hala ere, ez dakigu zer egingo dugun.

(Nahiz eta)

(arren)

Egia balitz ere, ez lidakete sinetsiko.

(-agatik)

(-ta/da ere)

Arazo larriak genituen. Hala ere, ez genuen amore eman.

(Nahiz eta)

(-agatik)

Ez nintzen gose, baina jatera behartu ninduten.

(-ta/da ere)

(arren)

Diru pila bat izango bazenu ere, ez zenidake ezertxo ere emango.

(Nahiz eta)

(arren)

Jolasean gabiltza, baina ez da inor konturatu.

(-agatik)

(nahiz eta)